

ENPRESETAN LAN KONTRATURIK GABEKO PRAKTIKAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO 2018ko DEIALDIA (UDAL GAZTEDI PLANA)

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere helburuen artean, gazteei zuzendutako zerbitzuak eta jarduerak sustatzea eta gazte politika integralak gauzatzeko aukerak ahalbidetzea ditu, «Gaztedi Bizkaia 2020» proiektuan jasotako konpromisoak lortzera bideratutako neurriak aurrera eramanez. Aipatutako helburua kontuan hartuta, Aldundiak Tokiko Erakundeen bitartez hiritarregana heltzea beharrezkoa ikusten du, erakunde hauek direlako hurbilenak.

Testuinguru honetan, kasu bakoitzean beharrezko zerbitzuak emanez, tokiko eremuan gaztedi politikak abian jarri nahi dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren “Bizkaiko Gaztedi Plana” agertzen da. Esku-hartzeko arlo nagusiak zortzi dira: hezkuntza eta prestakuntza, enplegua eta ekintzailtza, gizarte esku-hartzea, parte-hartzea eta nazioartekotzea.

Proiektu hau koordinatutako era batean kudeatzeko Foru Aldundiak gazte-eremuan Bizkaiko udalak biltzen duen “Udal Gaztedi” sortu zuen. Hain zuzen ere, gazteria politika integral bat ezarri, bultzatu eta garatzeko testuinguruan, Gaztedi Durangaldea 2017-2019ren barruan ondoko udalek parte hartzen dute: Abadiño, Amorebieta Etxano, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria eta Zaldibar. Horretarako eskualdea hiru eremutan zatitzen da:

- 1. eremua: Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.
- 2. eremua: Amorebieta-Etxano.
- 3. eremua: Ermua eta Mallabia

Gaztedi Durangaldea hitzarmena sinatzean, Amorebieta-Etxanoko Udalak eta sinatzen duten gainerako udalek, urte bakoitzaren hasieran ezarritako ekintzak bultzatu eta beraietan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute. Zentzu honetan, Amorebieta-Etxanoko Udalak inoren konturako lana sustatzeko ekintzak burutuko ditu, zehazki enpresetan lan kontraturik gabeko praktikak egiteko bekak emango ditu.

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea diru-laguntzak ematea da, Amorebieta-Etxanon erroldatutako gazte langabetuekin lan kontraturik gabeko praktikak egiteko hitzarmenak sinatzen dituzten enpresa edo erakundeei, 1543/2011 Errege Dekretua, enpresetan lan kontraturik gabeko praktikak arautzen dituen (2011ko azaroaren 18ko 278 zk.dun Estatuko Aldizkari Ofiziala) jarraituz.

Diru-laguntza hauen helburua prestakuntza kualifikatua duten gazteak laneratzea da, lan kontraturik gabeko praktiken programa baten bidez.

2. artikulua. Onuradunak

Lan kontraturik gabeko praktikak Amorebieta-Etxanoko gazteekin hitzartzen dituzten enpresak izango dira. Horretarako, gazte horiek Amorebieta-Etxanon erroldatuta eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon behar dira eta unibertsitate-titulazio ofizial bat izan behar dute, erdi mailako edo goi mailako Lanbide Heziketa titulazioa edo azken honen maila bereko titulazioa, arte edo kirol arloko lanbide heziketan edo profesionaltasun-ziurtagiri bat.

3. artikulua. Parte hartzeko enpresen baldintzak

- Zerga-betebeharrak egunean izatea eta bekaduna Gizarte Segurantzaren altan ematea.
- Beka ematen duen erakundearekin praktikaldiaren baldintzak jasotzen dituen hitzarmen bat sinatzea.
- Administrazio edota erakunde publikoen menpe ez egotea, ezta haiekin sozietate loturarik izatea ere.
- Diru laguntza publikoak jasotzeko eskubidetik baztertuta ez egotea.

4. artikulua. Parte hartzeko interesdunen baldintzak

- 18 eta 25 urte bitartekoa izatea edo, hazkunde, lehiakortasun eta efizientziarako premiazko neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 legearen arabera Gazteen Berme Sistemako Fitxategi Nazionalan inskribatzeko gehienez onartzen den adina izatea.
- Unibertsitate-titulazio ofizial bat, erdi mailako edo goi mailako Lanbide Heziketa titulazioa edo azken honen maila bereko titulazioa, arte edo kirol arloko lanbide heziketan edo profesionaltasun-ziurtagiri bat.
- Amorebieta- Etxanon erroldatuta egotea.
- Jarduera berdinean hiru hilabetetik gorako lan harremanik edo antzeko esperientzia profesionalik ez izatea, horietatik kanpo geratzen direlarik titulazioak edo dagokion ziurtagiriak eskuratzeko kurrikulumaren parte diren praktiketan emandako denbora.
- Lanbiden inskribatuta egotea.
- Bere kasuan, Gazte Berme Sistema Nazionalaren Fitxategian inskribatuta egotea.

5. artikulua. Edukia

Lan kontraturik gabeko praktikaldiak hurrengo ezaugarriak edukiko ditu:

- Hiru eta sei hilabete (3 eta 6 hilabete) arteko iraupena.
- Ohiko lanaldiaren %75eko lanaldia.

Bekaduna hartzen duen erakundeak KKK (Kotizazio Kontu Kode) espezifikoa bat eskatu beharko du bekaduna kotizatzen. Bekaduna hartzen duen erakundeak, praktikaldiaren

edukiaren inguruko informazioa eman behar du aurretik eta bekak ematen dituen erakundearen ebaluazioa onartu.

Bekadunak enpresak ematen dizkion aginduak bete behar ditu, proposatutako jarduera burutzerakoan, praktikalditik kanporatua izango delarik, honako kasuetan:

- Jarduera burutzean arduragabekeria nabarmena.
- Jasotzen dituen aginduei kasurik ez egitea.
- Lanlekuan egokiak ez diren jarrerak izatea.

Kanporatuz gero, enpresak beka eman dion erakundeari itzuli behar izango dio gauzatu ez den bekaren zati proportzionala.

6. artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

Erakunde onuradunek hilerio 500€-ko diru laguntza jasoko dute. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak, honakoak izango dira:

- Bekadunari emango zaion lansaria gutxienez Ondorio Askotarako Errentaren Adierazle Publikoaren % 80a izan beharko da.
- Enpresaren eta langilearen Gizarte Segurantzako kotizazioak.

7.artikulua. Aurrekontu-zuzkidura

Laguntzetara zuzendutako funts publikoa eta aurrekontuko partida deialdi bakoitzean zehaztuko da.

8. artikulua. Eskariak eta onuradunek aurkeztu beharreko agiriak

Eskariak oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita **2018ko urriaren 31ra arte** aurkeztu ahal izango dira Amorebieta-Etxanoko Udaleko sarrera erregistroan, Herriko plaza z.g..

Erakunde onuradunek, eskabidearekin batera ondokoak aurkeztu beharko dituzte:

- a) Oinarri hauen I. Eranskina, beteta.
- b) Enpresaren edo erakunde onuradunaren IFKren kopia
- c) Enpresa eratu izanaren erregistroko datuak eta eratze-eskiriturak, berezko izaera juridikoa duten erakundeen kasuan. Berezko izaera juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, kontratu pribatua gehitu beharko da, Foru Ogasunak zigilatua.
- d) Tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak egunean izatea egiaztatzea.
- e) Administrazio edota erakunde publikoen menpe ez egotea, ezta haiekin sozietate loturarik izatea eta diru-laguntza publikoak jasotzeko eskubidetik baztertua ez egotea erakusten duen zinpeko aitortpena, Oinarri hauen II. Eranskinean adierazita dagoen moduan.

- f) Hirugarren interesdunaren bankuko datuei alta emateko fitxa, dagokion banketxeak zigilatua (III. Eranskina).
- g) Egindako edo egingo den kontratazioaren datuak, Gizarte Segurantzaren kostua adieraziz. IV. Eranskina.

9. artikulua. Prozedura

Diru-laguntzak emateko oinarrizko irizpideak Oinarri hauen 3, 4 eta 5. artikuluetan zehazten dira. Baldintzak betetzen direla egiaztatzen denean, ordenantza honetan aurreikusitako diru-laguntza emango da.

Egindako eskariei dagokien kopuru osoak, aurrekontu partidan aurreikusitako kantitatea gainditzen badu, erakundeak partida aldatzeko aukera izango du.

10. artikulua. Ordaintzeko modua eta diru laguntzaren justifikazioa

Diru-laguntza ematea onartzen denetik hilabeteko epean, diru laguntzaren %100 aldeztatik aurretik ordaintzeko beharrezko tramitazioa burutuko da. Honetarako ez zaio onuradunari inolako bermerik eskatuko.

Egindako gastuak justifikatu egin beharko dira, horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko delarik Amorebieta-Etxanoko diru-laguntzen ordenantzako 18. artikuluan adierazten den modura. Epeari dagokionez, gehienez hilabeteko epea egongo da, praktikak amaitu ondoren.

11. artikulua. Diru-laguntzak itzultzea

Diru-laguntza osorik edo zati batean itzuliko da eta baita dagokion berandutze-interesa ere, Amorebieta-Etxanoko diru-laguntzen ordenantzako 20. artikuluan ezarritako kasuren bat ematen denean eta ordenantza horretako 21. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko da horretarako.

Era berean, itzultzeko arrazoiak izango dira, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 36. eta 37. artikuluetan adierazten diren guztiak.

I. ERANSKINA

Izen-abizenak

Enpresan duen kargua

-(r)en ordez:

Enpresaren izena

IFK:

Enpresaren helbidea

Kalea eta zk.

Telefonoa:

E-posta:

Enpresetan lan kontraturik gabeko praktikak egiteko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileen arabera, ondokoa

ADIERAZTEN DU:

1º. Aipatu diru-laguntzen oinarrietan ezarritako baldintzak eta betebeharrak ezagutzen dituela eta eskari-orrian eskatzaileak jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duela.

2º. Diru-laguntza oinarrietan ezarritakoaren arabera sinatu du praktikaldiaren baldintzak jasotzen dituen hitzarmen bat.

ESKATZEN DU:

Eskaria onartua izatea eta diru-laguntza eman dakiola diru-laguntza arautzen duten oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua

II. ERANSKINA

Izen-abizenak

Enpresan duen kargua

-(r)en ordez:

Enpresaren izena

IFK:

ONDOKO ZINPEKO AITORPENA EGITEN DU:

- a. Enpresa independentea dela eta ez duela sozietate loturarik administrazio edota erakunde publikoekin.
- b. Titularrak edota enpresako gehiengodun bazkideek ez dutela odolkidetasun edota ezkontza ahaidetasunik (2. mailara arte) kontratatu nahi denarekin.
- c. Arau-hausteengatik diru-laguntza eskuratzetik salbuetsi gabe dagoela eskatzailea.
- d. Proiektu honetarako bestelako diru-laguntzarik eskatu eta/edo lortu bada, ze erakunde publiko edo pribatuk aipatu beharko da, data eta baita diru-laguntzen zenbatekoa.

Eskaria egin zeneko data/eman zenekoa
edo emandako zenbatekoa

Erakundea

Eskatutako

Amorebieta-Etxano,.....

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua

III. ERANSKINA

Izen-abizenak

Enpresan duen kargua

-(r)en ordeztu:

Enpresaren izena

IFK:

JARRAIAN ADIERAZTEN DEN DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
ORDAINTZEKO ESKATZEN DU

(diru-laguntza eskarian aurkeztutako kontratazio epearengatik ustezko kopurua
adieraziko da)

..... €

ONDOKO KONTU KORRONTE ZENBAKIAN

Kontuaren titularraren izen-abizenak:

Bankua edo kutxa:

Sukurtsala:

Iban Erakundea Sukurtsalaren kodea K.Z. Kontu zenbakia

Behean izenpetzen duenak datuen egiazkotasunaren gaineko erantzukizuna bere gain
hartzeko du.

Amorebieta-Etxano,.....

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua

Banketxearen sinadura/zigilua

IV. ERANSKINA

Izen-abizenak

Enpresan duen kargua

-(r)en ordez:

Enpresaren izena

IFK:

KONTRATAZIOAREN DATUAK

Lanpostua

Gizarte Segurantzaren hilerako kuota

Kontratua edo aldaketa hasi deneko data

Kontratuaren amaierako data

Lanaldiaren %

Kontratu mota

KONTRATATUKO DEN PERTSONAREN DATUAK

Izen-abizenak

NAN/ AIZ:

Jaiotze-data

Helbidea

Telefonoa:

E-posta:

Langabezian noiz izena eman zuen

Formazioa:

Amorebieta-Etxano, (data).....

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua